



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 6a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00002. Foru-lege proposamena, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00063. Galdera, Navarrabiomedek kudeatutako entsegu kliniko komertzialak eskualdatzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (5. or.).

—11-24/POR-00064. Galdera, azpiegituren arloko aurrerabideei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).

—11-24/POR-00066. Galdera, eskola-uztearen tasari buruzko populazio aktiboaren inkesta dela-eta. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (6. or.).

—11-24/POR-00067. Galdera, IDISNAren ikerkuntza-ereduari eta entsegu klinikoen kudeaketari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (7. or.).

—11-24/POR-00068. Galdera, Europako migrazio-itunaren arloko konpromisoei eta jarraibideei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00069. Galdera, legez kanpoko libxiatuen kontrolari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).

—11-23/PES-00120. Galdera, zahar-etxe publiko eta itunduetako itxaron-zerrendeiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—11-23/PES-00145. Galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren idazkariaren aurkako salaketari eta Errioxako Aldeanueva de Ebron Lodosako ubideko 2.300 ha ureztalur handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—11-23/PES-00146. Galdera, zenbait aurrekontu-partidaren kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- 11-23/PES-00148. Galdera, ardi-sektoreko esne-enpresen kontratuak direla-eta EHNE sindikatuak jarritako salaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-23/PES-00149. Galdera, 11-23/PEI-00181 espedienteko ekimen parlamentarioa dela-eta igorritako kontabilitate-erantzukizunari buruzko txosten-oharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00002. Foru-lege proposamena, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 172, 173. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamenaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea, Erregelamenduko 172. eta 173. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Foru-lege proposamena, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak 178. artikuluan ezartzen du Kontu Orokorrei buruzko Foru-lege proiektua jaso ondoren Kontuen Ganberari igorriko diola Mahaiak bere lehen-dakariaren bitartez, horiek aztertu eta fiskaliza ditzan.

Prozesu horretan, Kontuen Ganberari dagokio Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio-eginkizuna. Auditoretza-txosten garrantzitsua da eta alderdi horretatik beharrezko betekizuna da ondoren eztabaidatua izan dadin Parlamentuan, non erabakiko baita kasuko foru-lege proiektua onetsi ala ez.

Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, ekitaldia amaitu eta hurrengo urteko uztailaren 1a arteko epea du Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua Parlamentura igortzeko. Horren arrazoia da kontuetan enpresa publikoak ere sartze direla, eta horiek ekainaren 30era arteko epea dute beren kontuak onesteko. Epe horiek ondorioz, prozesuaren tarte horretan ez da inongo jarduteko tarterik. Hortik aurrera, Nafarroako Parlamentuak Kontuen Ganberari igortzen dio proiektua eta honek hiru hilabete ditu Nafarroako Kontu Orokorrek aztertu eta fiskalizatzeko.

Parlamentuak eztabaidatu ahal izateko ekitaldi bateko aurrekontuak nola bete diren, hura bukatu eta hamar hilabetetik gora pasa gabe, haien kudeaketa ebaluatuta, aldaketa honen xedea da Nafarroako Kontuen Ganberak Nafarroako Kontu Orokorrek aztertu eta fiskalizatzeko duen epea hiru hilabetetik bira murriztea. Hala aurrekontu-betetzearen balorazioak duen garrantzia politiko eta soziala aintzat hartzen da; izan ere, aurrekontu-betetzearen azterketa egitea funtsezkoa da

hurrengo aurrekontuak taxutzeko. Halaber, aldaketa honekin, arestian azaldutakoagatik, behar bezalako kontu-ematea eta lan ona bultzatzen dira erakunde publikoetatik.

Hori guztia kontuan hartuta, Kontuen Ganberak irailerako igorri beharko luke fiskalizatutako kontuei dagokien auditoretza-txostena, halako moduz non Parlamentuak foru-lege proiektua azkar izapidetu ahalko lukeen eta urtero urrian aurreko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorrak eztabaidatu ahalko lituzkeen.

Artikulu bakarra. Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.b) artikulua aldatzekoa.

b) Nafarroako Kontu Orokorrak aztertu eta fiskalizatzea, Parlamentuak Ganberari helarazi eta hurrengo bi hilabeteetan.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00063. Galdera, Navarrabiomedek kudeatutako entsegu kliniko komertzialak eskualdatzeari buruzkoa*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Navarrabiomedek kudeatutako entsegu kliniko komertzialak eskualdatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan otsailaren 8ko Osoko Bilkuran:

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak adierazi duenez, Navarrabiomed

Miguel Servet Fundazioa ikerkuntza publikoko zentroa IDISNA fundazio pribatuaren alde deskapitalizatu izanaren "arrazoizko zantzuak" daude. Zentroak badu alde publiko bat (Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa, Navarrabiomed, NUP eta Osasun Publikoa) eta alde pribatu bat (Nafarroako Unibertsitate Klinika, Cima eta Nafarroako Unibertsitatea). Orain dela gutxi emandako ebazpen batean, bulegoak egiazkotasuna aitortzen die LAB sindikatuak salatutako gertakariei.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako galdera hau egiten du:

- IDISNAren patronatuak 2022ko ekainean erabaki zuen Navarrabiomedek kudeatutako entsegu kliniko komertzial gehienak entitate publiko-pribatu horren esku uztea. Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak zer neurri hartuko du erabaki hura baliogabetzeko edo aldatzeko eta, hartara, akordio simetriko bat bermatzeko, non bi aldeek, publikoak eta pribatuak, antzeko finantza-ahalegina egingen baitute?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/POR-00064. Galdera, azpiegituren arloko aurrerabideei buruzkoa*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, azpiegituren arloko aurrerabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 8ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Azken hilabeteotan zer aurrerabide egin da azpiegituren arloan eta zer aurrerabide egin nahi duzu legegintzaldian zehar?

Iruñean, 2024ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00066. Galdera, eskola-uztearen tasari buruzko populazio aktiboaren inkesta dela-eta*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, eskola-uztearen tasari buruzko populazio aktiboaren inkesta dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2024ko otsailaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du foru-erkidegoko eskola-uztearen tasari buruzko populazio aktiboaren inkesta dela-eta?

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00067. Galdera, IDISNAren ikerkuntza-ereduari eta entsegu klinikoaren kudeaketari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, IDISNAren ikerkuntza-ereduari eta entsegu klinikoaren kudeaketari

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2024ko

otsailaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak zenbait lan-bilera egin ditu IDISNA, entsegu klinikoak, kudeaketa... direla-eta, baina batez ere Nafarroarentzat nahi dugun ikerkuntza publikoaren eredia dela-eta. Horietan guztietan adostasun zabala egon da Nafarroan ikerkuntza publikoa defendatu behar diren inguruan, bestelako interes pribatu batzuen gainetik.

Iragan ostiralean, Miguel Servet Fundazioko enpresa-batzordearen prentsaurreko bati esker jakin genuen Nafarroako Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak ikerketa-prozedura bat abiaraziko duela entsegu publikoaren kudeaketa dela-eta.

Departamentuak zer neurri hartuko du IDISNAren ikerkuntza-eredua eta entsegu klinikoaren kudeaketa ikerkuntza publikoaren berme-emaile izan direla ziurtatzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/POR-00068. Galdera, Europako migrazio-itunaren arloko konpromisoei eta jarraibideei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Europako migrazio-itunaren arloko konpromisoei eta jarraibideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako lehendakariordeak adierazi duenez “Espainia EBko lehendakaritzan egon den bitartean akordio bat lortu da Europar migrazio-itunaren arloan, zenbait konpromiso eta pautak ezarrita”. Hartutako konpromiso horiek zertan eraginen diote Nafarroari?

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00069. Galdera, legez kanpoko lixibiatuen kontrolari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, legez kanpoko lixibiatuen kontrolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariaren ustez, Gobernuak behar adinako arduraz kontrolatu al ditu Zubietako ingurumen konplexutik (Gipuzkoa) Artaxoara ekarritako legez kanpoko lixibiatuak?

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-23/PES-00120. Galdera, zahar-etxe publiko eta itunduetako itxaron-zerrendei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zahar-etxe publiko eta itunduetako itxaron-zerrendei buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porras jaunak 11-23/PES-00120 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz:

Nafarroako Gobernuaren Gizarte Zerbitzuen Zorroak prestazio bermatu gisa jasotzen du adinekoentzako egoitza-arreta, zeina plaza publikoen edo itunduen bidez eskainiko baita. Zerbitzu horren jarraipena egin ahal izateko, honako galdera hau egin nahi diogu Eskubide Sozialetako Departamentuari:

- Zer itxaron-zerrenda dago gaur egun, eta zenbat denbora itxaron behar da batez beste

zahar-etxe publikoetako toki bat (El Vergel, Santo Domingo eta udalaren zahar-etxeak), alde bate-tik, eta itundutako zahar-etxeetako toki bat, beste-tik, lortzeko?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Une honetan 664 pertsona daude plaza itundu baten zain: horietatik 521 egoitzako plaza bat okupatzen daude, eta beste 143 beren etxean. 1. taulan jasotzen da pertsona kopurua eskatutako egoitza motaren arabera (publikoa, itundua eta eskaeran zentro mota espezifikorik zehazten ez dutenak). Adierazi behar da toki erakundeen titulartasuneko egoitza publikoek plazak ituntzen dituztela Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziarekin egoitza pribatuekin baliatzen den sistema beraren bitartez.

Egoitzako plaza bat okupatzen ari diren 521 pertsonetatik, 62 plaza itundu nahiz publiko bat ari dira okupatzen, baina beste zentro batera lekualdatzeko eskatu dute (hiruk gizarte zerbitzuetako eremu berean). Gainontzeko 459 pertsonak plaza pribatu bat ari dira okupatzen eta zerbitzuari lotutako prestazio bat jasotzen dute finantzatzeko. 2. taulan jasotzen dira bidaltzeko eskatutako eremuak.

1. taula. Plaza itunduaren zain dauden pertsonen kopurua egoitza motaren arabera.

EGOERA	EGOITZA PUBLIKORAKO*	EGOITZA ITUNDURAKO	EZ DUTE ZENTRORIK ADIERAZI	GUZTIZKOA
ETXEAN	18	62	63	143
EGOITZAN	91	367	63	521
GUZTIRA	109	429	126	664

*Egoitza publikotzat jo dira titulartasun publikokoak diren denak (nola Nafarroako Gobernuarenak hala toki erakundeenak), berorien kudeaketa publikoa zein pribatua izan.

2. taula. Lekualdatzeko itxaroten ari diren pertsonen kopurua helmugako eremuen arabera.

	IRUÑEKO BARRUTIA	TUTERAKO BARRUTIA	LIZARRA	IPAR-MENDEBALDEA	GUZTIZKOA
LEKUALDATZEAREN ZAIN	53	5	1	3	62

Jarraian jasota dago zentro bakoitzera sartzeko itxaron-zerrenda:

3. taula. Titulartasun publikoko zentroetako itxaron-zerrenda.

Zentroa/biztanleria	Itxaroten dauden pertsonen kop.	Zerbitzuari lotutako prestazioak zentroan	Zerbitzuari lotutako prestazioak beste zentro batean	Lekualdatzea plaza publikoa	Helbidea	Itxarote egunak (batez beste)	Itxarote egunak (tartea)
Andosilla	6	6				100	39-207
Ameskoa	3	2	1			82	73-97
Lodosa	9	9				136	24-566
Los Arcos	2	1	1			210	142-279
Mendabia	3	3				81	53-108
Irunberri	5	5				136	98-157
Otsagabia	4	4				55	15-109
Zangoza	4	3	1			81	5-180
Altsasu	13		5	3	5	150	11-241
Lesaka	1	1				105	
Elizondo (J.Iriarte)	9	9				91	11-181
El Vergel	16		3	4	9	192	17-354
Caparroso	2	2				51	16-87
Martzilla	2	1	1			71	43-100
Miranda Arga	2	2				20	17,24
San Martin Unx	3	2			1	117	39-240
Ntra. Sra. Caridad (Tafalla)	5	5				114	39-183
Buñuel	4	4				118	51-174
Cintruénigo	7	7				129	37-201
Corella	5	5				35	1-69
Fitero	2	2				80	45-115
Alesbes	3	2			1	122	2-254

4. taula. Titulartasun pribatuko zentroetako itxarote zerrenda.

Zentroa/biztanleria	Itxaroten dauden pertsonen kop.	Zerbitzuari lotutako prestazioak zentroan	Zerbitzuari lotutako prestazioak beste zentro batean	Lekualdatzea plaza publikoa	Helbidea	Itxarote egunak (batez beste)	Itxarote egunak (tartea)
Luz de Estella	6	3	1		2	51	11-142
S. Jerónimo	11	7		1	3	378	80-758
Lerin	2	2				156	111-201
Muruzabal	6	5			1	110	54-115
San Adrián	3	2	1			215	172-291
Sesma	3	3				99	34-176
Viana	1				1	88	
Agoitz	6	6				66	3-115
Erro	4	4				130	9-227
Bera	2	2				54	45-63
Benito Menni	1	1				176	
Betelu	3	3				81	43-110
Landazabal	62	45		2	15	257	9-697
Amavir Mutilva	22	21			1	80	1-174
Amavir Argaray	10	8	1		1	69	1-200
Amavir Oblatas	22	20		1	1	123	1-655
MECA	32	19	2	2	9	101	25-200
San Fermín	8	7	1			65	10-124
Beloso	6	6				92	31-194
Domus Vi	21	18	1		2	139	12-310
El Mirador	3	3				124	56-178
La Vaguada	73	44	4	6	19	259	11-692
Amavir Eguesibar	25	23			2	90	8-200
Bidealde	34	30		2	2	179	8-339
Artaxoa	2	1			1	118	101-135

Barasoain	1	1				166	
Faltzes	3	3				102	74-152
Erriberri	4	4				67	15-93
S. Manuel eta S. Severino	12	10			2	97	37-183
Cascante	5	5				46	1-83
Cortes	3	2			1	103	73-150
Erruki Etxea (T)	10	6		4		186	44-352
Ntra. Sra. Gracia (Tutera)	9	7		1	1	142	18-281
Torre Monreal	7	7				108	3-271
Valtierra	6	6				113	1-174

Eskaeran zentrorik zehaztu ez duten 126 pertsonen artean, 63 etxean daude, 20 plaza publiko zein itunduan, baina zentroz aldatzeko eskatuta (oro har Iruñea eta Iruñerria eremuetara aldatzeko), eta gainontzekoek zerbitzuari lotutako prestazioa kobratzen dute eta plaza itundu baten zain daude nahiz eta helmugako zentrorik ez duten zehaztu.

Azkenik, gogorarazi behar da ezen, Iruñea eta Iruñerriko zentroetan izan ezik, erabiltzaileentzako egoitzako plazaren kostua berbera dela plaza

itunduan egon zein zerbitzuari lotutako prestazio bidez finantzatutako plaza pribatuan egon.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Eskubide Sozietako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00145. Galdera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren idazkariaren aurkako salaketari eta Errioxako Aldeanueva de Ebron Lodosako ubideko 2.300 ha ureztalur handitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren idazkariaren aurkako salaketari eta Errioxako Aldeanueva de Ebron Lodosako ubideko 2.300 ha ureztalur handitzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-23/PES-00145 galdera egin du idatziz Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren idazkariak jasotako salaketari buruz eta Aldeanueva de Ebron (Errioxa) Lodosako ubideko 2.300 ha ureztalur handitzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiaren Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak emandakoa, alegia:

Zer nolako zaintza egin du Nafarroako Gobernuak eta zer neurri hartuko ditu Tuterako Huertas Mayores ureztatzaileen elkarteak azken 30 urteetan bere idazkaria izan dena salatu ondoren, egindako kontabilitate eta lan irregulartasunak direla eta?

Urei buruzko Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen duenarekin bat, erabiltzaileen erkidegoak, arroko organismoak emandako uren emakida baten titular diren aldetik, ez dira autonomia erkidegoen tutoretzapeko erakundeak. Parlamentariak aipatzen duen kasuan, salaketak epaitegietan arrakasta izanez gero eta Nafarroako Ogasun Publikorako kalteak egiaztatzen badira, foru administrazioa kasuan kasu agertuko da sortutako kaltea berroneratzeko.

Gobernua jakinaren gainean al dago Aldeanueva de Ebron (Errioxa) Lodosako ubideko 2.300 ha ureztalur "handitu" behar direla, zeinak eragiten ahal baitio Nafarroako elkartearen etorkizunari? Nola defendatu behar du Gobernuak Nafarroako ureztatzaileen elkarteak konparaziozko bidegabekeria horren aurrean?

Arroko erakundeak ahalmena du eman dituen ur emakidak aldatzeko, eta parlamentariaren kasuan emakida azalera handitzea da hizpide, esleitutako emakida bera handitu gabe, Nafarroako ureztatzaileen erkidegoen beste aldaketa batzuetan gertatu den bezala. Horietako batzuk (Viana I) izapidetzen ari dira orain. Beraz, ezin da esan konparaziozko bidegabekeriarik dagoenik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00146. Galdera, zenbait aurrekontu-partidaren kudeaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, zenbait aurrekontu-partidaren kudeaketari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak PES-00146 galdera egin du idatziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

2023ko urriaren 20ko 218. Aldizkarian argitaratu zen urriaren 11ko 217/2023 Foru Dekretua, zeinaren bidez Analisi eta Prospekzio Bulegoa erakunde autonomoa sortu eta haren estatutuak onetsi baitziren.

Dekretu horretan ezartzen da unitateen eginkizunen eta izendapenen aldaketa (hirugarren xedapen gehigarria).

1. Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zerbitzuaren eginkizunak eta izendapena aldatzen dira, Analisiaren, Ebaluazioaren, Berrikuntzaren, Prospekzioaren eta Estrategia Operatiboaren Zerbitzua bihur dadin, eta estatutuen 16. artikuluan xedatutako eginkizunak izan ditzan.

2. Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zerbitzuaren baitako bi atalen eginkizunak eta izendapena aldatzen dira. Plangintza, Ebaluazio eta Kalitatearen Atala aldatu eta Analitika Aurreratua, Prospekzioaren, Estrategia Operatiboaren eta Ebaluazioaren Atal bihurtuko da, eta estatutuen 18. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu.

3. Berrikuntza Sozial, Prestakuntza eta Europako Proiektuetako Atala aldatu eta Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atal bihurtuko da, eta estatutuen 19. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu.

Honako galdera hau egin da: hurrengo aurrekontu partiden harira eta horietako bakoitzerako, zein arduratuko da kudeatzeaz behin Analisi eta Prospekzio Bulegoa sortu ondoren? Bada, aipatutako dekretua aintzat hartuta, honako hau da erantzuna:

Partidak	Kudeaketa
910001 92100 2266 231002 SEM Prestakuntza, ikuspegi dialogikodun sare-lanean	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 2269 231000 Programak eta planak sustatu, zabaldu, argitaratu eta banatzea	Analitika Aurreratua, Prospekzioaren, Estrategia Operatiboaren eta Ebaluazioaren Atala.
910001 92100 2269 231002 Sustatzea etengabeko hobekuntza eta kalitate-alorreko prestakuntza-ekintzak	Analitika Aurreratua, Prospekzioaren, Estrategia Operatiboaren eta Ebaluazioaren Atala.
910001 92100 2269 231004 PATHWAYS proiektua Bestelako gastu askotarikoak Behatokia	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 2269 231005 SEM Prestakuntza ematea profesionaleri ikuspegi dialogikodun sare-lanean	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 2276 231000 Ikerketak eta hitzarmenak errealitate sozialaren arloan	Analitika Aurreratua, Prospekzioaren, Estrategia Operatiboaren eta Ebaluazioaren Atala.
10001 92100 2276 231004 Berrikuntza sozialeko proiektuak eta proiektu europarrak	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 2276 231006 PATHWAYS proiektua, laguntza teknikoak	Amaituta
910001 92100 2276 231007 NEXT GENERATION funtsen kontrol eta jarraipenerako bulegoa	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 2276 231008 (E) Azterlan integrala Barañaingo zahar-etxerako	Amaituta
910001 92100 2279 231000 SEM Laguntza teknikoa Ikerketa, Berrikuntza eta Konponbideen garapenerako Instituturako...	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.

910001 92100 2279 231002 SEM Ikuspegi dialogikodun sare-laneko zerbitzu-errentamenduak	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 4455 231000 SEM Transferentzia arruntak (NUP)	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 4609 231002 (E) Hitzarmena Izarbeibarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin azterlanak egiteko...	Amaituta
10001 92100 4609 231003 (E) Hitzarmena Barañaingo Udalarekin. Proiektu pilotua ethez-etxeke arretarako	Amaituta
910001 92100 4609 231004 SEM Toki entitateekiko hitzarmenak, ikuspegi dialogikodun sare-lana egitekoak	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 4809 231002 Ikerketa-bekak eta -proiektuak	Analitika Aurreratuaren, Prospekzioaren, Estrategia Operatiboaren eta Ebaluazioaren Atala.
910001 92100 4809 233102 Emandako bekak	Analitika Aurreratuaren, Prospekzioaren, Estrategia Operatiboaren eta Ebaluazioaren Atala.
910001 92100 4819 231000 SEM Dirulaguntza arruntak landa-berrikuntzako proiektuetarako	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 7455 231000 SEM Kapital transferentzia (NUP)	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.
910001 92100 7819 231000 SEM Kapitaleko dirulaguntzak landa-berrikuntzako proiektuetarako	Berrikuntza Publikoaren eta Europako Proiektuen Atala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-23/PES-00148. Galdera, ardi-sektoreko esne-enpresen kontratuak direla-eta EHNE sindikatuak jarritako salaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Severiano Txoperena Matxikote jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ardi-sektoreko esne-enpresen kontratuak direla-eta EHNE sindikatuak jarritako salaketari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Severiano Txoperena Matxikote jaunak 11-23/PES-00148 galdera idatzia egin du, ardi aziendaren sektoreko esnekien enpresen kontratuei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Zioen azalpena

Irailaren 15ean ENHE sindikatuak Elikagaien Informazio eta Kontrolerako Agentzian (AICA) jakinarazi zuen AICA horretan salaketa jarriko duela ekoizpen gastuen azpitik dauden kontratuak dituzten ardi aziendako sektoreko esnekien enpresen aurka.

Sindikatuaren arabera, nahiz eta Elikadura Katearen Legeak betebeharra ezarri kontratuak bi hileko aurretiaz sinatzeko eta ekoizpen kostuak nork bere gain hartzeko, artzain batzuek esnea dohaintzan eman behar dute idatzizko kontraturik gabe eta ekoizpen kostuek bermatutako prezioak jaso gabe. Gainera, aurtengo uztailetik aurrera nahitaezkoa da 1.000 eurotik gorako kontratuak erregistro batean inskribatzea, elikakatearen legeak ezartzen duen bezala.

Hori dela-eta, parlamentari gisa dudan zeregin ahalik hoberen betetzeko, eta indarrean dagoen araudiaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkiot, idatziz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunari:

1. *Izan al du Nafarroako Gobernuak ENHE Kontfederazioa sindikatuak salatutako jokabide horien berri?*

Elikadura katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legeak ezartzen du elikadura kate osoan nahitaez kontratatu behar dela, salbuespenak salbuespen. Esnegintzaren sektoreak, gainera, berriazko araudia du arlo horretan: 95/2019 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Esnegintzaren sektorean kontratazio baldintzak ezartzen dituena eta sektoreko ekoizleen erakundeen eta lanbide arteko erakundeen aintzatespena arautzen duena eta esnegintzaren sektorean aplikatzekoak diren zenbait errege dekretu aldatzen dituena.

Esnegintzari aplikagarri zaion berriazko araudi horrek kontratu bidezko harremanak ezartzen ditu esne gordinaren horniketako merkataritza transakzioak egiten dituzten operadore guztientzat, transformadoreen arteko esne gordinaren hornidura puntualetarako izan ezik, eta betebeharrak berezi batzuk ezartzen dizkie esnegintzaren sektoreko operadoreei. Esne gordina erosteko kontratuak, 12/2013 Legearen arabera elikadura kontratuen erregistroan erregistratzeaz gain, esnearen sektoreko informazio sistema bateratua (INFOLAC) datu basean ere erregistratu behar dira, apirilaren 24ko 319/2015 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Besteak beste, produktua ekoizle batekin kontratatu duen esne gordinaren lehenengo erosleak ahalik lasterren jakinaraziko ditu kontratuaren datuak, eta inoiz ez zazpi egun baliodun baino gehiago kontratua indarrean jartzeaz geroztik. Jakinarazpen horiek euskarri informatikoan egingen dira, INFOLAC datu basean.

Lehenengo erosleek honako datu hauek eman behar dituzte, besteak beste:

- Aldeen identifikazioa, ekoizlearen ustiapen kodea barne.
- Kontratuaren xedea.
- Horniduragatik ordainduko den prezioa; finkoa, aldakorra edo mistoa izan daiteke.
- Hornituko den bolumena, litrotan.

Gainera, lehenengo erosleak behartuta daude berezita adieraztera prezio desberdinetan ordaindutako esne bolumenak, bai eta kalitate bereiziko (ekoizpen ekologikoa, ekoizpen integratua, DOP, IGP edo ETG) eta ekoizpen horietarako ez diren esnekiak ekoiztera bideratutakoak ere, bakoitza

dagokion prezioekin lotuta, eta, aldi berean, finkoak, aldakorak edo mistoak diren adierazita.

Jakinarazten dizut, gainera, esnearen sektorean kontratuak egoteari buruzko ez-betetzeak ere zehagarriak direla, Nekazaritza Politika Erkidea eta hari lotutako beste gai batzuk kudeatzeko sistema arautzen duen abenduaren 23ko 30/2022 Legearen arabera.

Kontraturik gabeko esne entregak egiten ari direlako adierazpenari dagokionez, jakinarazten dizut Departamentu honetan ez dela jaso kontraturik gabeko esne entreegi buruzko salaketarik, eta ez dela hori gerta zitekeen egoera zehatzen berri izan (EHNEk Gipuzkoako erosleei esne entreegi buruz egindako salaketa orokorrak gain). Horrelako egoeren berri izanez gero, dagozkion ikuskapenak hasiko lirateke, Elikadura katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 21/2013 Legearen esparruan.

Ekoizpen kostuak baino prezio baxuagoak dituzten kontratuei dagokienez, jakinarazten dizut EHNEren salaketaren albistea komunikabideetan argitaratu zenetik, Departamentu honen ardura duen unitateak Nafarroan ardi esnearen lehenengo erosleek ordaindutako prezioak aztertu dituela, bai eta ekoizpen kostua gainditzeko printzipioaren balizko ez-betetzea ere.

Analisiak barne hartzen ditu Nafarroan 2023ko urtarriletik irailera bitartean egindako entregak, hau da, 13 milioi litro. Aldi horretan ordaindutako batez besteko prezio haztatua 1,262 €/ litro da, eta gutxieneko prezio ordaindua 1,011 €/ litro.

Nafarroan ardi esnea ekoizteko kostuei dagokienez, azterketa bat egin da esnetarako ardien 12 ustiategiko lagin bati buruz. Dirulaguntzen aurreko ekoizpen kostua, azterlanetik ondorioztatzen dena, 1,87 €/ litro da. Azpiproduktuengatik diru sarrerak eta dirulaguntzak aplikatu ondoren, 1,004 €/ litroko kostu garbia geratzen da.

Datu horien arabera, Nafarroan ez da betetzen ari 12/2013 Legean ezarritakoa, ez kontratuei dagokienez, ez eta ekoizpen kostuen azpitik ordaindutako prezioei dagokienez ere. Hori guztia egindako datuetan eta analisisietan oinarrituta. Hala ere, jarraipen espezifikoaren eginen zaie hurrengo urteetako kostu prezioaren mugan dauden kontratuei.

2. Nafarroako Gobernua harremanetan jarriko al da nekazaritza sindikatuekin, ezezko erantzuna emanaz gero, egoerari buruzko informazioa lortzeko?

Departamentua nekazaritzako sindikatuekin harremanetan dago etengabe hainbat gai kudea-

tzeko, eta horrela jarraituko du izaten sektorearen eskutik etengabeko hobekuntzan lan egiteko ahalleginean. Gainera, berariaz jorratuko ditu kontratuen datuak eta sektorearen egoera, ardi esnearen erosketaren jarraipen zorrotza egiteko.

3. Egoera larria denez, Nafarroako Gobernuak beharrezko urratsak emanen ditu latxa ardiaren inguruko elkarrizketa foroa biltzeko? Zergatik ez da bildu azken urte honetan?

Latxa ardiaren inguruko elkarrizketa foroa 2023ko martxoaren 3an bildu zen azken aldiz. Abenduan berriz biltzea aurreikusita da, kanpaina horren balorazioa eta 2024ko kanpainaren aurreikuspena egiteko.

4. Aierdi jaunak Parlamentuan irailaren 29an izandako agerraldian aipatu zuen departamentuaren ildo orokorrak aurkezteko prezioen behatokia abian jarriko zuela. Noizko dago aurreikusita? Egonen al da partidarik aurrekontuetan? Zer betekizun izanen ditu behatoki horrek?

1. Aurreikuspenen arabera, prezioen behatokiak 2024ko lehen hiruhilekoan argitaratuko ditu lehenengo datuak.

2. 173.507,80 euroko aurrekontu partida espezifiko bat egonen da. Behatokia garatzeko eta ezartzeko, INTIAri kontratatutako laguntza teknikoa erabiliko da. Gaur egun, laguntza hori oneste-ko izapideak egiten ari dira.

3. Behatokiak honako hauek jasoko ditu: elikadura katearen merkataritza harremanetan aplikatzekoa den legeria, nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenetako batez besteko ekoizpen kostuei buruzko informazioa, katearen legea ez betetzeagatik ezarritako zehapenei buruzko informazioa, kontratu ereduak, kontratazioari eta legeari buruzko hainbat alderdiri buruzko azalpen gidak, kontratu ereduak, nekazariak eta abeltzainek jasotako eta ordaindutako prezioei buruzko informazioarako estekak, eta legea ez betetzeagatik salaketak aurkezteko prozeduretarako estekak ere bai.

5. Zer urrats emanen ditu Nafarroako Gobernuak latxa ardiaren kontratuak gainbegiratzeko?

Departamentuak 2023an eta 2024an ardi esnearen kontratuen erregistroa, entregak eta ordaindutako prezioak zaintzeko prozesuari eutsiko dio. Era berean, horri dagozkion ekoizpen kostuak argitaratuko ditu, eta ekoizpen kostutik beherako salmentak geratzen badira, jardun egingen da.

6. INTIAk kudeaketa datuak eramaten dizkie artzain batzuei. Ba al dago esne litroen kostuari buruzko daturik Nafarroan?

Horri lehenengo galderan erantzun zaio.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00149. Galdera, 11-23/PEI-00181 espedienteko ekimen parlamentarioa dela-eta igorritako kontabilitate-erantzukizunari buruzko txosten-oharrari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 11-23/PEI-00181 espedienteko ekimen parlamentarioa dela-eta igorritako kontabilitate-erantzukizunari buruzko txosten-oharrari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko aaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du – 2023ko urriaren 24ko 4133 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– 11-23/PEI-00181 espedientearen erantzunean aipatutako Kontabilitateko erantzukizunaren oharrari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nor da igorritako dokumentazioan sartu den Ohar-txosten horren egilea?

Kontrol Juridikoaren Ataleko buruak egin zuen oharra; bere eginkizunen artean zuen Kontu Hartzailtzeko Zuzendaritza Nagusiari aholkularitza juridikoa ematea, eta kontu hartzaile nagusiaren taldeko kide zen.

Behin lehenengo auditoretza lana 53/2021 Foru Aginduan definitutako irismenarekin amaitu ondoren, eta ulertzen zenez oraindik aztertze

zeuden gaiak lan gehigarri batean jorratu behar zirela eta egindako lanaz bestelako irismen batekin, kontu hartzaile nagusiak Kontrol Juridikoaren Ataleko buruari eskatu zion aztertzen has zedila ea erantzukizunen bat ote zegoen.

2.- Ohar-txostenaren edukia ikusita, zer balorazio egin zen Ekonomia eta Ogasun Departamentuan edo Garapen Ekonomiko eta Industria-koan?

Oharrean kontabilitate erantzukizunaren kontzeptua aipatzen zen, eta kontzeptu horren gaineko eskumena Kontuen Auzitegiari dagokio. Beraz, oraindik azterketa fasean bazegoen ere, Kontu Hartzailtzeko Zuzendaritza Nagusiak Kontuen Ganberarekin jorratu zuen.

3.- Dokumentu hori izan al zen Landa Garapeneko kontseilariak hizpide hartutakoa bere agerraldian, zeinetan esan baitzuen auditoriako paperen artean bat erakutsi zitzaioela, kontabilitate-erantzukizuna aipatzen zuena?

Kontseilariak bere agerraldian lan paperei buruz egindako aipamenei dagokienez, elkarrizketa bat denez, Ekonomia eta Ogasun Batzordean azalduakoa baino ezin dut aipatu.

Hala ere, adierazi behar da ohar hori ez dela Ekonomia eta Ogasun Departamentuan dauden lan paperetako bat, eta ikuskapen lanean jasotako iritziari eusten diotela. Iritzi horren ondorioz, 2020-12-31n adostutako prozeduren eta kontu ikuskaritzen laburpen txostenean sartu zen eranskina egin zen. Auditoretza txostena egin ondoren sortu zen dokumentua da; behin betiko gehigarria 2022-07-27an sinatu zen, eta dokumentua 2022-08-08an sortu zen.

4.- Zergatik ez zen aintzat hartu Ohar-txostenean jasotzen den irizpen juridikoa, zeinetan adierazten baita kontabilitate-erantzukizuna egoteko betekizunak bete egiten direla?

Ikus daitekeenez, sinatu gabeko oharra da, oraindik azterketa fasean zegoen gai bati buruzkoa, Kontuen Ganberak akordioari buruzko auditoretza lan bat egitea erabaki zuenean. Beraz, une horretan Departamentuan gai horri buruzko jarduketa guztiak bertan behera utzi ziren.

5.- Igorri al zitzaion dokumentu hori Kontuen Ganberari?

Bai, Kontuen Ganberari helarazi zitzaion.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 15ean.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

11-24/OTL-00001. Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzekoa

2024ko otsailaren 5ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena, indarreko Langileen Estatutuaren laugarren xedapen gehigarriekin eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarriekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena, honekin batera doana, onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena Erregelamendu Bartzordera igortzea, honek erabateko legegintza eskumenez onets dezan.

3. Aipatu Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamenari zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, **otsailaren 21eko 12:00etan bukatuko dena.**

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Langileen Estatutuaren aldaketa honen arrazoia da Nafarroako Parlamentuko negoziatio-mahaian honako puntuei buruz iritsitako akordioa: kasuko langilearen eskuerako aukera gisa arautzea erditzeagatiko, adopzioagatiko edo adopziorako edo harrerarako zaintzagatiko lizentzia bat hartuta duten edo ama biologikoaz bestelako gurasoaren baimen bat hartuta duten izangaien kargu-jabetzearen geroratzea; ezartzea, aukeratzat, borondatezko eszedentziako egoeratik mailigoeran parte hartu ahal izatea, enplegatua Nafarroako Parlamentuko aldi baterako beste lanpostu batean zerbitzu ematen ari denean; gradu-igoera aldatzea, muga 8. graduraino igoz; eta 18 hilabeteke lanpostu erresebadun borondatezko eszedentziako egoeraren araubide berria ezartzea, arauak aurreikusten dituen kasuak gehituz, eta destino-itxaronaldia ere ukituz.

Langileen Estatutu indardunaren laugarren xedapen gehigarriak ezarritako prozedurari eta Parlamentuko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzen da.

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzen da, nondik norako hauekin:

Bat. 11. artikuluko d) letra aldatzen da. Testu hau izanen du:

"d) Karguaren jabetza hilabeteke epean hartzea, izendapenaren jakinarazpenetik aurrera zenbatua, salbu eta behar adina justifikaturiko arrazoi bat dagoenean. Funtzionario-lanpostuaren jabetzaren hartzea geroratzen ahalko da, baldin kasuko izangaiak hartuta badauka erditzeagatiko, adopzioagatiko edo adopziorako nahiz harreran hartzeko zaintzagatiko lizentzia bat edo ama bio-

logikoz bestelako gurasoaren baimen bat. Gerorazteak iraunen du kasu bakoitzean etenik gabe hartuta dagoen aldiak bezainbeste.

Izangaiak gerorapena aukeratzen badu, lanpostuaren jabetza hartzeko epearen zenbaketa hasiko da interesdunak erditzeagatik, adopzioagatik edo adoptatzeko edo harreran hartzeko zainzagatik duen lizentzia edo baimena etenik gabe hartzen ari den aldia igaro eta gero, edo lehenago, baldin eta interesdunak hala eskatzen badu. Nolanahi ere, beti errespetatuko da erditzearen ondoko nahitaezko atsedendaldia.

Kasu horietan, emandako zerbitzuen aldi gisa onartuko da lanpostuaren jabetza hartzeko gerorapenaren iraunaldia. Onarpen hori postuaren jabetza hartzeari egonen da baldintzatuta, eta data horretatik aurrerako efektuak sortuko ditu.

Apartatu honetan ezarritakoa aintzat hartuko da aldi baterako kontrataziorako deialdietan, kontratazio horren berriazko ezaugarrien araberako egokitzapenekin".

Bi. 12. artikuluko 3. apartatuko c) letra aldatzen da, eta hauxe izanen du testu berria:

"c) Borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea, salbu eta borondatezko eszedentzian dagoen pertsona zerbitzu ematen ari denean Nafarroako Parlamentuko aldi baterako beste lanpostu batean."

Hiru. 12. artikulua 9. apartatua aldatzen da. Honela geldituko da idatzita:

"9. Goragoko hurren-hurrengo gradurako igoera eginen da gradu berean bost urte ematearekin, salbu eta 8. gradua erdietsi dutenen kasuan".

Lau. 19. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

"19. artikulua.

1. Borondatezko eszedentzia deklaratzeko ahalko da, funtzionario den langileak eskatuta, ondoko kasu hauetan:

a) Funtzionario bezala edo aldi baterako lan-kontratadun bezala Nafarroako Parlamentuko beste kidego edo eskala batean, beste administrazio publiko batean edo administrazio publiko baten menpeko nortasun juridiko berekidun entitate batean zerbitzu ematera igartzeko, hasierako hemezortzi hilabeteetan jatorrizko postuaren erreserbari eutsirik.

b) Funtzionarioaren interes partikularrarengatik, jatorrizko postuaren erreserbari hasierako hemezortzi hilabeteetan eutsirik, zerbitzuaren beharrek horretarako modua ematen badute eta

interesdunak frogatu egiten badu bere eskaera egin aurreko urtebetean, gutxienez, jardunean edo egoera parekatuan aritu dela.

c) Alderdi politiko, sindikatu edo lanbide-erakundeetan zuzendaritza-karguak betetzeko, funtzio publikoan aritzearekin bateraezinak direnak.

2. Zilegi izanen du borondatezko eszedentzia eskatzea postua lortu duenak Nafarroako Parlamentuko lanpostu baterako hautaprosedura batean, funtzionario nahiz aldi baterako lan-kontratadun gisa Nafarroako Parlamentuan edo beste administrazio publiko batean zerbitzu ematen segitzeko. Kasu horietan, borondatezko eszedentzia deklaratzeko da Nafarroako Parlamentuko funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartua izan ondoren. Eszedentzia onartzeak ez du postuaren gaineko inolako erreserbarik ekarriko, eta postu hori beteko du gaindituen zerrendan jarraian dagoen hurrengo izangaiak.

3. Borondatezko eszedentzia, betiere, denbora mugagabe baterako emanikotzat joko da.

4. Behar bezala justifikaturiko beharrezana dagoenean izan ezik, borondatezko eszedentziako egoeran dauden funtzionarioek ezin izanen dute eskatu zerbitzu aktiborako itzulera, harik eta egoera hartan urte oso bat bete duten arte. Itzulera onartua izan ondoren, hilabete epean gauzatu beharko da. Hala egin ezean, langileak galdu eginen du funtzionario izaera.

5. Borondatezko eszedentziako egoeran dauden funtzionarioek eutsi eginen diete eskuratuta dauzkaten maila, gradu eta antzinatasunari, baina ez zaie eskubide ekonomikorik sortuko, eta egoera hartan eman duten denbora ere ez zaie inolako ondoriotarako aintzat hartua izanen.

6. Noiz eta borondatezko eszedentziak berekin jatorrizko postuaren erreserba baitakar, funtzionarioek zilegi izanen dute, aipatu egoeran hemezortzi urte betetzean, nor bere posturako itzulera eskatzea, eta itzulera hori hilabete epean gauzatzeko da.

Bost. 13. artikuluko e) letra aldatzen da. Hona testu berria:

"e) Zerbitzu aktibora ez itzultzea, eszedentzia berezia edo borondatezkoa amaitu ondoren".

Sei. 15. artikuluko e) letra kentzen da.

Zazpi. 23. artikulua kentzen da.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean

hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

Hala ere, hirugarren apartatua, 12. artikulua 9. apartatuaren testu berriari dagokionez, ondorio ekonomikoekin 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.
